



BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

Legezko Gordailua / Depósito Legal BI-1958-1 - ISSN. 1134-8720

BAO. 36. zk. 2004, otsailak 23. Astelehena

— 3937 —

BOB núm. 36. Lunes, 23 de febrero de 2004

Laburpena / Sumario

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa / Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Xedapen orokorrak / Disposiciones generales

Hirigintza eta Udal Harremanen Saila

Otsailaren 11ko 201/2004 FORU AGINDUA, Artea eta Arantzazuko «Bildosola Auzunea» Industri Sektoreko Plan Partzialari buruzkoa.

Otsailaren 6ko 182/2004 FORU AGINDUA, José Luis Bustinza Torrontegui jaunak abuztuaren 26ko 614/2003 Foru Aginduaren aurka jarri zuen berraztertze-errekurtsoa. Foru agindu horren bidez Ondarroako arau subsidiarioen aldarazpenari gaitziritzi zitzaion, Zaldubideko 3.6. burutzapenuenari buruzkoa.

Herri Administrazio Saila

Bizkaiko Foru Aldundiak aparteko ordainsari lizentziari dagokion hitzarmena aldatzeari buruz hartutako ERABAKIA.

3939

3939

3940

3941

3941

Departamento de Relaciones Municipales y Urbanismo

ORDEN FORAL 201/2004, de 11 de febrero, relativa al Plan Parcial del Sector Industrial «Bildosola Auzunea» en los municipios de Artea y Arantzazu.

ORDEN FORAL 182/2004, de 6 de febrero, relativa al recurso de reposición formulado por don José Luis Bustinza Torrontegui, contra la Orden Foral 614/2003, de 26 de agosto, denegatoria de una modificación de las Normas Subsidiarias de Ondarroa en la Unidad de Ejecución 3.6 Zaldubide.

Departamento de Administración Pública

ACUERDO de la Diputación Foral de Bizkaia relativo a modificación del convenio sobre licencia retribuida extraordinaria.

Iragarkiak / Anuncios

Herri Administrazio Saila

Herri Administrazioetako kontratuei buruzko Legeko testu bategineko 93. artikulua ezarri eginiko adjudikazioen argitalpena.

3942

3942

Departamento de Administración Pública

Publicación de adjudicación en aplicación del artículo 93 del Texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

II. Atala / Sección II

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa / Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia

Bilboko Udala

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

Bilbao Kirolak

Trutziozko Udala

Ereñoko Udala

Getxoko Udala

Barakaldoko Udala

Mundakako Udala

3944

3947

3955

3957

3957

4016

4017

4031

Ayuntamiento de Bilbao

Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

Bilbao Kirolak

Ayuntamiento de Trucíos

Ayuntamiento de Ereño

Ayuntamiento de Getxo

Ayuntamiento de Barakaldo

Ayuntamiento de Mundaka



III. Atala / Sección III

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración Autonómica del País Vasco

Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	4033	Departamento de Industria, Comercio y Turismo
Bizkaiko Lurralde Bulegoa	4033	Oficina Territorial de Bizkaia
	4036	Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social
	4036	Delegación Territorial de Bizkaia

V. Atala / Sección V

Justizi Administrazioa / Administración de Justicia

4037	Juzgado de lo Social número 1 de Bizkaia
4038	Juzgado de lo Social número 3 de Bizkaia
4038	Juzgado de lo Social número 4 de Bizkaia
4040	Juzgado de lo Social número 5 de Bizkaia
4045	Juzgado de lo Social número 6 de Bizkaia
4045	Juzgado de lo Social número 7 de Bizkaia
4046	Juzgado de lo Social número 8 de Bizkaia
4050	Juzgado de lo Social número 9 de Bizkaia
4053	Juzgado de lo Social número 2 de Alava
4054	Juzgado de lo Social número 2 de Santander
4055	Juzgado de lo Social número 4 de Santander
4055	Juzgado de lo Social número 3 de Oviedo
4056	Juzgado de Primera Instancia número 13 de Bilbao
4056	Juzgado de Instrucción número 1 de Bilbao
4057	Juzgado de Instrucción número 2 de Bilbao
4057	Juzgado de Instrucción número 4 de Bilbao
4058	Juzgado de Instrucción número 5 de Bilbao
4059	Juzgado de Instrucción número 6 de Bilbao
4059	Juzgado de Instrucción número 8 de Bilbao
4060	Juzgado de Instrucción número 10 de Bilbao
4060	Juzgado de Primera Instancia e Instrucción de Balmaseda
4061	Juzgado de Primera Instancia e Instrucción número 1 de Gernika-Lumo
4061	Juzgado de Primera Instancia e Instrucción número 1 de Getxo
4062	Juzgado de Primera Instancia e Instrucción número 1 de Durango

VII. Atala / Sección VII

Beste zenbait / Varios

Bilboko Portuko Agintaritza	4062	Autoridad Portuaria de Bilbao
Bideak-Bizkaiko Bideak, S.A.	4063	Bideak-Bizkaiko Bideak, S.A.

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia**Foru Aldundia / Diputación Foral**
Xedapen orokorrak / Disposiciones generales**Hirigintza eta Udal Harremanen Saila**

Otsailaren 11ko 201/2004 FORU AGINDUA, Artea eta Arantzazuko «Bildosola Auzunea» Industri Sektoreko Plan Partzialari buruzkoa.

Aipatu Foru Aginduaren bidez, ondokoa xedatu izan da:

1. Eten egiten da Artea eta Arantzazuko «Bildosola Auzunea» industrialdearen plan partzialaren behin betiko onespena. Jarraian adierazten diren akats hauek ongi etorri eta zuzendu behar dira:

1.1. Plan Partzialaren aprobetxamendua Artea eta Arantzazuko Arau Subsidiarioetan haizu denari egokitu da, eta gehieneko okupazioaren azalera (%30) eta arloaren aprobetxamendua ($0,38 \text{ m}^2/\text{m}^2$) arloaren azalera gordinaren arabera aplikatzearen emaitzakoa izango da; horrek esan nahi du kalkuluari ekiteko ez dela bideen sistema orokorraren azalera zenbatuko.

1.2. Arantzazuko Arau Subsidiarioen 1. berrikuspenean ezarri denarekin bat, zaindu egin behar da SGVI-M09-5 bideen udal sistema orokorraren taxuketa, ebazpen honen bidezko atalean transkribatu diren baldintzak betez.

1.3. Aholkatzen da Plan Partzialaren antolamendua Arteako udalerriko «Bildosola Auzunea» arloaren antolamendurako Arau Subsidiarioen aldarazpenean eman den orientaziozko planoari egokitzea, hain zuzen ere toki bidetasunaren jardunbide egokia bermatuko duen 10 eta 11 lurzatiaren egingo den bigarren mailako bidetasuna taxutuz.

1.4. Plan Partzialaren dokumentuak erabilera xehekatua eman behar ditu, hain zuzen ere Artea eta Arantzazuko Arau Subsidiarioetan haizu diren erabilera eta ezarri diren mugekin bat, eta erabilera guztiak kokatzeko irizpideak eman behar ditu eta erabilera horiei buruzko baldintzak ezarri. Baldintza horien artean berriaz azalduko da debeku dela txikizkako merkataritza egitea.

1.5. Plan partzialaren araudian, Plangintzari buruzko Araudian eskatzen diren aparkatzeko plazak ez ezik, lurzatiek duten erabilaren arabera eska daitezkeen plazen kopurua ezarriko da.

1.6. Behin betiko antolamenduan lurzatiaren barruan esparru askea utziko da plangintzak ezarri dituen zerupeeko aparkatzeko gutxienezko plazak kokatzeko aukera emateko. Halaber, mugikortasun urria duten pertsonentzat erreserbatu diren plazak adierazi behar dira.

1.7. Irisgarritasuna sustatzeari buruzko 20/1997 Legeak ezarri dituen irizpideak betez bermatu egin behar da eraikitara oinezkoen iristeko aukera, hala industri lurzati pribatiboen barruan oinezkoentzako bide bat eginez nola bigarren mailako bideetan espaloiak eginez.

1.8. Ekipamenduen lurzatiaren eraikinaren gehieneko lerrokadurak ezarriko dira eta, merkataritzako lurzatiaren kasuan, egon dagoen airetikoa linea elektrikoaren zortasuna hartu behar da kontuan.

Departamento de Relaciones Municipales y Urbanismo

ORDEN FORAL 201/2004, de 11 de febrero, relativa al Plan Parcial del Sector Industrial «Bildosola Auzunea» en los municipios de Artea y Arantzazu.

Mediante la Orden Foral de referencia se ha dispuesto lo siguiente:

1. Suspender la aprobación definitiva del Plan Parcial del Sector Industrial «Bildosola Auzunea» en los municipios de Artea y Arantzazu, debiendo corregirse las deficiencias que a continuación se señalan:

1.1. El aprovechamiento del Plan Parcial se adecuará al aprovechamiento fijado en las Normas Subsidiarias de Artea y Arantzazu, debiéndose fijar las superficies de ocupación máxima (30%) y aprovechamiento del sector ($0,38 \text{ m}^2/\text{m}^2$), sobre la superficie bruta del sector, es decir, para el cálculo de los aprovechamientos no se computará la superficie del Sistema General Viario.

1.2. De acuerdo con las Normas Subsidiarias (1.ª revisión) del municipio de Arantzazu, se deberá respetar el trazado del Sistema General viario municipal SGVI-M09-5, con las condiciones establecidas que se han transcrito en el apartado correspondiente de esta resolución.

1.3. Se recomienda aproximar la ordenación del Plan Parcial a la ordenación propuesta en el plano orientativo presentado con la Modificación de las Normas Subsidiarias para la ordenación del sector «Bildosola Auzunea» del municipio de Artea, trazando una vialidad secundaria en las parcelas 10 y 11, que garantice el correcto funcionamiento de la vialidad local.

1.4. El documento de Plan Parcial deberá asignar los usos pormenorizados, de acuerdo con los usos permitidos y las limitaciones establecidas en las Normas Subsidiarias de los municipios de Artea y Arantzazu, estableciéndose los criterios para la ubicación de los diferentes usos y fijándose las condiciones a los mismos, entre las que se recogerá, expresamente, la prohibición del comercio al «por menor».

1.5. En la Normativa del Plan Parcial, además de las plazas de aparcamiento exigidas por el Reglamento de Planeamiento, se deberá fijar el número de plazas exigido en función de los diferentes usos de las parcelas.

1.6. En la ordenación definitiva se deberá dejar, en el interior de las parcelas, el espacio libre suficiente para posibilitar la localización en superficie del número mínimo de plazas de aparcamiento fijado por el planeamiento. Además se deberán señalar las plazas reservadas a las personas de movilidad reducida.

1.7. De acuerdo con los criterios fijados en la Ley 20/1997, para la Promoción de la Accesibilidad, se deberá garantizar el acceso peatonal a las edificaciones, bien, dejando un paso peatonal en el interior de las parcelas privativas industriales, o bien, disponiendo aceras en los viales secundarios.

1.8. En las parcelas de equipamiento se deberán fijar las alineaciones máximas de la edificación que, en el caso de la parcela comercial, además tendrán que tener en cuenta la servidumbre de la línea aérea eléctrica existente.

1.9. Plangintzari buruzko Araudian ezarri denarekin bat merkataritzako ekipamendurako erreserbatuko den lurzoruaren azalera gutxienez arloaren %1 izango da.

1.10. Gune askeen definizioa duten aldeetan 0,02 m²/m² gehieneko eraikigarritasun koefizientea ezarriko da eraikin txiki osagarrietarako.

1.11. Euskadiko Autonomia Erkidegoko ibai eta errekaen ertzak antolatzeke Arlokako Plana betez, 5 eta 10. lurzatietan Arratia ibaiaren ubideraino ezarriko den gutxieneko distantzia 16,00 metrokoa izango da.

1.12. Ebazpen honen oinarrietan adierazi diren akatsak zuzenduko dira.

2. Ebazpen hau Udalarri jakinaraziko zaio eta ohartarazi egingo zaio ahalik eta arinen eta ezarri diren zuzenketa horiek egin ondoren dokumentazioaren hiru ale aurkeztu behar dituela, hain zuzen ere horren behin betiko onespenera ekiteko. Adierazi diren zuzenketa horiek ez dira funtsezkoak eta, ondorioz, ez da beharrezkoa dokumentua berriz jendaurrera aurkeztea.

3. Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Administrazio-bidea amaitzen duen aipatu ebazpenaren aurka, hurrengo errekurtsoen arteko edozein jarri ahalko duzu, zure interesen defentsan egokituz irizten duzun beste edozein ekin-tzapideren kaltetan gabe:

a) Zuzenean, Euskal Herriko Justizi Auzitegi Goreneko Jurisdikzio horretako Salaren aurrean administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbatutako hil biko epearen barruan.

b) Aukeran eta aipatu errekurtsuaren aurretiazko eran, interesatuen aldetik birjarpenezko errekurtsua edo beste Administrazioen aldetik errekerimendua ebazpena eman duen erakundearen beraren aurrean, hau jakinarazi edo argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbatutako hil bateko epean.

Aipatu epean zehar HI-260/2003-P06 espedientea agerian utziko da, aztertu nahi denerako, Bilboko Rekalde Zumarkaleko 18. zenbakiaren 2. solairuan.

Bilbon, 2004ko otsailaren 13an

Hirigintza eta Udal Harremanen foru diputata,
JUAN FRANCISCO SIERRA-SESUMAGA IBARRECHE

(I-228)

Otsailaren 6ko 182/2004 FORU AGINDUA, José Luis Bustinza Torrontegui jaunak abuztuaren 26ko 614/2003 Foru Aginduaren aurka jarri zuen berraztertze-errekurtsua. Foru agindu horren bidez Ondarroako arau subsidiarioen aldarazpenari gaitziritzi zitzaion, Zaldubideko 3.6. burutzapenuneari buruzkoa.

Aipatu Foru Aginduaren bidez, ondokoa xedatu izan da:

Lehena.—José Luis Bustinza Torrontegui jaunak aurkeztu duen berraztertze-errekurtsuari oniritzea eta, ondorioz, eten egiten da Ondarroako arau subsidiarioen aldarazpenaren behin betiko onespenera, hain zuzen ere Zaldubideko 3.6. burutzapenuneari dagokionez. Ondoko zuzenketa egin behar dira:

—Dokumentuan oinarri kartografiko eguneratua sartu behar da eta horretan saihezbidea agertuko da egun duen egoeran.

—Halaber, era egokian zehaztuko da sustapen honen eta bide-tasunaren sistema orokorraren arteko bide-lotura.

—Ebakidura eta profilen planoak sartu behar dira, eta horietan eraikinak mendiarekiko duen bukaera azalduko da eta bermatu egingo da ez dela barruko etxebizitzarik egingo.

—Euskadiko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak 2003ko uztailaren 4an egin duen txostenaren arabera, burutzapenari dagokion ordenantzak etxebizitzaren gehieneko kopurua ezarriko du (60), eta horietatik %20 babes ofizialekoak izango dira.

1.9. De acuerdo al Reglamento de Planeamiento la superficie de suelo reservada para equipamiento comercial será como mínimo el 1% de la superficie del sector.

1.10. En las áreas definidas como sistema de espacios libres se deberá establecer un coeficiente de edificabilidad máximo de 0,02 m²/m², para las pequeñas edificaciones auxiliares.

1.11. De acuerdo al Plan Sectorial de Ordenación de márgenes de los ríos y arroyos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la edificación de las parcelas 5 y 10 se deberá situar, como mínimo, a una distancia de 16,00 metros respecto al cauce del río Arratia.

1.12. Se corregirán los errores contemplados en el apartado correspondiente de los fundamentos de esta resolución.

2. Notificar la presente resolución al Ayuntamiento para que, en el plazo más breve posible, presente tres ejemplares de la documentación para proceder a su aprobación definitiva, una vez introducidas las correcciones impuestas que por no ser de carácter sustancial, no requieren de un nuevo trámite de exposición pública.

3. Publicar la presente resolución en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponer cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estime procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso, contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Durante el referido plazo el expediente HI-260/2003-P06 quedará de manifiesto para su examen en las dependencias de Bilbao, Alda. Rekalde, 18, 2.ª planta.

Bilbao, a 13 de febrero de 2004.

El Diputado Foral de Relaciones Municipales y Urbanismo,
JUAN FRANCISCO SIERRA-SESUMAGA IBARRECHE

(I-228)

ORDEN FORAL 182/2004, de 6 de febrero, relativa al recurso de reposición formulado por don José Luis Bustinza Torrontegui, contra la Orden Foral 614/2003, de 26 de agosto, denegatoria de una modificación de las Normas Subsidiarias de Ondarroa en la Unidad de Ejecución 3.6 Zaldubide.

Mediante la Orden Foral de referencia se ha dispuesto lo siguiente:

Primero.—Estimar el recurso de reposición interpuesto por don José Luis Bustinza Torrontegui y, en consecuencia, suspender la aprobación definitiva de la modificación de las Normas Subsidiarias de Ondarroa en la Unidad de Ejecución 3.6 Zaldubide, debiendo incorporarse las siguientes correcciones:

—Deberá incluirse en el documento una base cartográfica actualizada, en la que aparezca la variante en su estado actual.

—Asimismo deberá definirse adecuadamente el entronque viario de esta promoción con el sistema general viario.

—Deberá incorporarse un plano de perfiles y secciones, donde se muestre el remate de la edificación con el monte y se garantice que no se prevén viviendas interiores.

—De acuerdo con informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco de 4 de julio de 2003, la ordenanza correspondiente a la unidad deberá establecer el número máximo de viviendas (60), disponiendo que el 20% sea de protección oficial.

Bigarrena.—Ebazpen honen berri ematea Udalarri, interesatuari eta Euskadiko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari eta lehenbiziko horri ohartaraziko zaio dokumentazio horren hiru ale aurkeztu behar dituela, hau da, ezarri diren zuzenketak egin ondoren, horren behin betiko onespenera ekiteko. Aldaketa edo zuzenketak horiek ez dira funtsezkoak eta, ondorioz, ez da beharrezkoa berriz ere dokumentua jendaurrera aurkeztea.

Hirugarrena.—Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Administrazio-bidea amaitzen duen aipatu ebazpenaren aurka, egintza jakinarazi edo argitaratzearen hurrengo egunetik zentzuzko hil biko epearen barruan administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa jarri ahal duzu Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko aipatu Jurisdikzioko Salaren aurrean.

Aipatu epean zehar, BHI-097/2003-P05-A-G espedientea agerian utziko da, aztertu nahi denerako, Bilboko Rekalde Zumar-kaleko 18 zenbakiaren 2. solairutako bulegoetan.

Bilbo, 2004ko otsailaren 10ean.

El Diputado Foral de Relaciones Municipales y Urbanismo,
JUAN FRANCISCO SIERRA-SESUMAGA IBARRECHE

(I - 221)

Herri Administrazio Saila

Bizkaiko Foru Aldundiak aparteko ordainsari lizentziari dagokion hitzarmena aldatzeari buruz hartutako ERABAKIA.

Bizkaiko Foru Aldundiak, 2004ko otsailaren 3ko bileran, beste hainbaten artean honako Erabaki hau hartu zuen:

«**Lehena.**—Bizkaiko Foru Aldundiko eta beraren menpeko diren Erakunde Autonomoetako lan-kontratuko langileriaren enplegu-baldintzak araupetzen dituen Hitzarmenaren aldaketa onestea; horrela aparteko ordainsari lizentzia barruan jasotzen duen 37. artikuluan D) paragrafo berria sartzen du eta aipaturiko aparteko ordainsari baimenaren arauketa biltzen duen 59.BIS artikulua berria ezartzen.

Bigarrena.—Esandako aurreko aldaketak sartu ostean, sei-nalaturako xedapenen idazkera hurrengo era honetan geratzen da:

«**V. kapitulua**
LIZENTZIAK

37. artikulua

....

2. Era berean, lizentzia eman ahal izango zaizkie ondoko kasu hauetan:

...

D) *Aparteko ordainsari lizentzia.*»

Era berean, aipaturiko aparteko ordainsari lizentzia Hitzarmen Araupetzailan sartzeak bertan 59.bis artikulua berri bat sartzea dakar, hitzez hitz honela idatzita geratzen delarik:

«59. artikulua.bis.—Aparteko ordainsari lizentzia

Bizkaiko Foru Aldundiak edota beraren menpeko edozein EE.AA.k aparteko ordainsari lizentzia eman ahal izango diote ordez-kotasun kontratuari loturiko denbora partzialeko kontratuaren peko den langileari benetako zerbitzua ez betetzeagatik, horrela eskatzen duenean.

Aparteko ordainsari lizentziaren iraupena langileak ohiko arauzko erretirorako adina (65 urte) betetzea, edo 1194/1985 Errege Dekretuan aurretiaz ikusitako 64 urteko erretiroa hartzea edota legez jaso dezakeen beste edozein erretiro gertatzea nahiz legezko bestelako edozein zertzelada dela tarteko kontratua irau-gizat jotzeko biderik izatea dela bide kontratua amaitzen den artekoa izango da.

Segundo.—Notificar la presente resolución al Ayuntamiento, al interesado y a la Comisión de Ordenación del territorio del País Vasco, instando al primero a que, en el plazo más breve posible, presente tres ejemplares de la documentación para proceder a su aprobación definitiva, una vez introducidas las correcciones impuestas que, por no ser de carácter sustancial, no requieren de un nuevo trámite de exposición pública.

Tercero.—Publicar la presente resolución en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Durante el referido plazo el expediente BHI-097/2003-P05-A-G quedará de manifiesto para su examen en las dependencias de Bilbao, Alda. Rekalde, n.º 18, 2.ª planta.

Bilbao, a 10 de febrero de 2004.

El Diputado Foral de Relaciones Municipales y Urbanismo,
JUAN FRANCISCO SIERRA-SESUMAGA IBARRECHE

(I - 221)

Departamento de Administración Pública

ACUERDO de la Diputación Foral de Bizkaia relativo a modificación del convenio sobre licencia retribuida extraordinaria.

La Diputación Foral de Bizkaia, en su reunión de 3 de febrero de 2004, ha adoptado el siguiente acuerdo:

«**Primero.**—Aprobar la modificación del Convenio Regulador de las Condiciones de Empleo del Personal Laboral de la Diputación Foral de Bizkaia y sus OO.AA., en el sentido de introducir un nuevo apartado D) en su art. 37, donde se recoge la Licencia retribuida extraordinaria, y un nuevo Artículo 59.BIS, donde se recoge la regulación de la mencionada Licencia retribuida extraordinaria.

Segundo.—Tras la introducción de las modificaciones anteriormente citadas, la redacción de las disposiciones señaladas quedará de la siguiente manera:

«**Capítulo V**
LICENCIAS

Artículo 37

....

2. Igualmente podrá concedérseles licencia:

...

D) *Licencia retribuida extraordinaria.*»

Asimismo, la introducción en el Convenio Regulador de la mencionada licencia retribuida extraordinaria supondrá la inclusión en el mismo de un nuevo artículo 59.bis, con el siguiente tenor literal:

«Artículo 59.bis.—Licencia retribuida extraordinaria

La Diputación Foral de Bizkaia o cualquiera de sus OO.AA. podrán conceder licencias retribuidas extraordinarias, por no prestar servicio efectivo un trabajador acogido a un contrato a tiempo parcial vinculado a un contrato de relevo, y así lo solicite.

La duración de la licencia retribuida extraordinaria será hasta la expiración del contrato, la cual se producirá al alcanzar el trabajador la edad de jubilación reglamentaria ordinaria (65 años) o se acoga a la jubilación a los 64 años prevista en el Real Decreto 1194/1985 o a cualquier otra jubilación que legalmente pueda corresponderle, o cuando por cualquier circunstancia legal el contrato haya de considerarse extinguido.

Aparteko ordainsari lizentziak dirauan artean indarrean iraungo dute aipaturiko lan-kontratuaren ondorio guztiek. Horrela, langileak denbora partzialeko kontraturako hitzartutako ordainsariak jasoko ditu dagozkien eguneratzeak eginez, eta Administrazioan indarrean den arautegiaren arabera dagozkien gizarte eskubideak gozatuk. Aldundiari edo Erakunde Autonomoari dagokio egiten duen ordainketan ohiko atxikipean egin eta Gizarte Segurantzari alta emanda mantentzea.

Bateratu ezinezkoak izango dira lizentzia hau erabiltzea eta berari dagozkion eguneko orduen barruan irabazteko asmozko inolako ordaindutako lanik, norberaren edota inoren kontura egitea; eta, edozein kasutan ere, bateraezintasunei buruzko arautegiaren peko izango da.

Sortzen den egoera hau langilearen eta Aldundiaren edo dagozkion Erakunde Autonomoaren arteko akordio aske bidez utzi ahal izango da indarririk gabe.»

Hirugarrena.—Honako erabaki honetan egin diren aldaketek eragina onespentatzen ostean aurkeztutako eskabideetan izango dute.

Laugarrena.—Honako Ebazpen honen berri Foru Aldundiko Foru Sail guztietako Zerbitzu Orokorrei jakinaraztea eta, baita ere, beronen berri Foru Erakunde Autonomo eta Herri Enpresei eta Eusko Jaurlaritzak Bizkaian duen Lan Ordezkaritzari (Hitzarmenak) ematea.

Bosgarrena.—Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bilbon, 2004ko otsailaren 5ean.

Herri Administrazioaren foru diputatua,
IÑAKI HIDALGO GONZÁLEZ

(I-212)

Durante la duración de la licencia retribuida extraordinaria se continuarán produciendo todos los efectos de dicho contrato de trabajo. De este modo, el trabajador/a percibirá la retribución convenida para el contrato a tiempo parcial con sus actualizaciones correspondientes, y disfrutará de los derechos sociales que puedan corresponderle según la normativa vigente en la Administración. La Diputación u Organismo Autónomo correspondiente efectuará en su retribución las retenciones ordinarias y le mantendrá en alta en la Seguridad Social.

El disfrute de esta licencia es incompatible con la realización de ninguna clase de actividad por cuenta ajena o propia con ánimo de lucro en la parte de su jornada correspondiente a la misma y, en cualquier caso, se encontrará sujeto a la normativa sobre incompatibilidades.

La situación que se crea solamente podrá quedar sin efecto por libre acuerdo entre el trabajador y la Diputación u Organismo Autónomo correspondiente.»

Tercero.—Las modificaciones introducidas en el presente acuerdo surtirán efecto en las solicitudes presentadas a partir de la fecha de su aprobación.

Cuarto.—Dar cuenta del presente Acuerdo a los Servicios Generales de todos los Departamentos Forales de la Diputación Foral, así como comunicar dicho acuerdo a los Organismos Autónomos y Empresas Públicas Forales y a la Delegación de Trabajo del Gobierno Vasco en Bizkaia (Convenios).

Quinto.—Publicar el presente acuerdo en el "Boletín Oficial de Bizkaia" y en el "Boletín Oficial del País Vasco".»

Bilbao, a 5 de febrero de 2004.

El Diputado Foral de Administración Pública,
IÑAKI HIDALGO GONZÁLEZ

(I-212)

Iragarkiak / Anuncios

Herri Administrazio Saila

Herri Administrazioetako kontratuei buruzko Legeko testu bateginako 93. artikulua ezarriko adjudikazioen argitalpena.

1.—Erakunde adjudikatzailea

- a) *Erakundea:* Bizkaiko Foru Aldundia.
- b) *Espedientea izapidetzen duen dependentsia:* Kontratazio Zerbitzua (Herri Administrazio Saila).
- c) *Espediente-zenbakia:* 2003/00127.

2.—Kontratuaren xedea

- a) *Kontratuaren mota:* Zerbitzuak.
- b) *Xedearen deskripzioa:* Ogasun eta Finantza Sailean elektrizitate instalazioak mantentzea. 2004 eta 2005. urteetan.
- c) *Erloak:* Ez.
- d) *Aldizkari ofiziala eta lizitazio iragarkiaren argitalpen data:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2003ko azaroaren 13a.

3.—Tramitazioa, prozedura eta adjudikazio-era

- a) *Tramitazioa:* Arrunta.
- b) *Prozedura:* Irekia.
- c) *Era:* Lehiaketa.

4.—Lizitazio-oinarriaren aurrekontua

Zenbateko osoa: 350.064,00 €.

Departamento de Administración Pública

Publicación de adjudicación en aplicación del artículo 93 del Texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

1.—Entidad adjudicadora

- a) *Organismo:* Diputación Foral de Bizkaia.
- b) *Dependencia que tramita el expediente:* Servicio de Contratación (Departamento de Administración Pública).
- c) *Número de expediente:* 2003/00127.

2.—Objeto del contrato

- a) *Tipo de contrato:* Servicios.
- b) *Descripción del objeto:* Mantenimiento de las instalaciones eléctricas del Departamento de Hacienda y Finanzas. Años 2004 y 2005.
- c) *Lotes:* No.
- d) *Boletín Oficial y fecha de publicación del anuncio de licitación:* «Boletín Oficial de Bizkaia» de 13 de noviembre de 2003.

3.—Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación

- a) *Tramitación:* Ordinaria.
- b) *Procedimiento:* Abierto.
- c) *Forma:* Concurso.

4.—Presupuesto base de licitación

Importe total: 350.064,00 €.

5.—Adjudikazioa

- a) *Data:* 2004ko urtarrilaren 27a.
- b) *Kontratista:* Ferrovial Servicios, S.A.
- c) *Naziotasuna:* Espainiakoa.
- d) *Adjudikazioaren zenbatekoa:* 320.320,00 €.

1.—Erakunde adjudikatzailea

- a) *Erakundea:* Bizkaiko Foru Aldundia.
- b) *Espedientea tramitatzen duen bulegoa:* Kontratazio Zerbitzua (Herri Administrazio Saila).
- c) *Espediente zenbakia:* 2003/00139.

2.—Kontratuaren xedea

- a) *Kontratuaren mota:* Aholkularitza eta laguntza.
- b) *Xedearen deskripzioa:* «Parekatuz» proiektua osatzen duten lan esparruen prestaketa, deialdia eta dinamizazioa.
- c) *Erloak:* Ez.
- d) *Aldizkari ofiziala eta lizitazio iragarkiaren argitalpen data:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2003ko abenduaren 17a.

3.—Tramitazioa, prozedura eta adjudikazio-era

- a) *Tramitazioa:* Arrunta.
- b) *Prozedura:* Irekia.
- c) *Era:* Lehiaketa.

4.—Lizitazio-oinarriaren aurrekontua

Zenbateko osoa: 111.478,13 €.

5.—Adjudikazioa

- a) *Data:* 2004ko urtarrilaren 27a.
- b) *Kontratista:* Ados Consulting Ikertaldea, S.L.
- c) *Naziotasuna:* Espainiakoa.
- d) *Adjudikazioaren zenbatekoa:* 108.133,79 €.

1.—Erakunde adjudikatzailea

- a) *Erakundea:* Bizkaiko Foru Aldundia.
- b) *Espedientea tramitatzen duen bulegoa:* Kontratazio Zerbitzua (Herri Administrazio Saila).
- c) *Espediente zenbakia:* 2003/00145.

2.—Kontratuaren xedea

- a) *Kontratuaren mota:* Zerbitzuak.
- b) *Xedearen deskripzioa:* Bizkaiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila eta Lan eta Trebakuntza Sailaren garbiketa. 2004. urtea.
- c) *Erloak:* Ez.
- d) *Aldizkari ofiziala eta lizitazio iragarkiaren argitalpen data:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2003ko abenduaren 22a.

3.—Tramitazioa, prozedura eta adjudikazio-era

- a) *Tramitazioa:* Arrunta.
- b) *Prozedura:* Irekia.
- c) *Era:* Lehiaketa.

4.—Lizitazio-oinarriaren aurrekontua

Zenbateko osoa: 123.040,00 €.

5.—Adjudikazioa

- a) *Data:* 2004ko urtarrilaren 27a.
- b) *Kontratista:* Masterclin, S.A.
- c) *Naziotasuna:* Espainiakoa.
- d) *Adjudikazioaren zenbatekoa:* 119.980,00 €.

Bilbon, 2003.eko otsailaren 9an.—Herri Administrazio Saileko foru diputatua, Iñaki Hidalgo González

5.—Adjudicación

- a) *Fecha:* 27 de enero de 2004.
- b) *Contratista:* Ferrovial Servicios, S.A.
- c) *Nacionalidad:* Española.
- d) *Importe de adjudicación:* 320.320,00 €.

1.—Entidad adjudicadora

- a) *Organismo:* Diputación Foral de Bizkaia.
- b) *Dependencia que tramita el expediente:* Servicio de Contratación (Departamento de Administración Pública).
- c) *Número de expediente:* 2003/00139.

2.—Objeto del contrato

- a) *Tipo de contrato:* Consultoría y asistencia.
- b) *Descripción del objeto:* Preparación, convocatoria y dinamización de los espacios de trabajo que integran el Proyecto Parekatuz.
- c) *Lotes:* No.
- d) *Boletín Oficial y fecha de publicación del anuncio de licitación:* «Boletín Oficial de Bizkaia» de 17 de diciembre de 2003.

3.—Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación

- a) *Tramitación:* Ordinaria.
- b) *Procedimiento:* Abierto.
- c) *Forma:* Concurso.

4.—Presupuesto base de licitación

Importe total: 111.478,13 €.

5.—Adjudicación

- a) *Fecha:* 27 de enero de 2004.
- b) *Contratista:* Ados Consulting Ikertaldea, S.L.
- c) *Nacionalidad:* Española.
- d) *Importe de adjudicación:* 108.133,79 €.

1.—Entidad adjudicadora

- a) *Organismo:* Diputación Foral de Bizkaia.
- b) *Dependencia que tramita el expediente:* Servicio de Contratación (Departamento de Administración Pública).
- c) *Número de expediente:* 2003/00145.

2.—Objeto del contrato

- a) *Tipo de contrato:* Servicios.
- b) *Descripción del objeto:* Limpieza de los Departamentos de Innovación y promoción Económica y Empleo y Formación de la Diputación Foral de Bizkaia.
- c) *Lotes:* No.
- d) *Boletín Oficial y fecha de publicación del anuncio de licitación:* «Boletín Oficial de Bizkaia» de 22 de diciembre de 2003.

3.—Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación

- a) *Tramitación:* Ordinaria.
- b) *Procedimiento:* Abierto.
- c) *Forma:* Concurso.

4.—Presupuesto base de licitación

Importe total: 123.040,00 €.

5.—Adjudicación

- a) *Fecha:* 27 de enero de 2004.
- b) *Contratista:* Masterclin, S.A.
- c) *Nacionalidad:* Española.
- d) *Importe de adjudicación:* 119.980,00 €.

Bilbao, a 9 de febrero de 2004.—El Diputado Foral del Departamento de Administración Pública, Iñaki Hidalgo González

II. Atala / Sección II

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa
Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia**Bilboko Udala**

IRAGARKIA

Udalbatzak 2004ko urtarrilaren 29ean egindako batzarraldian erabaki hau hartu zuen, besteak beste (esp.: 03 1034 000040):

Bat.—Behin betiko onartzea Polboretxebidean, Etxebarria parkearen barruan, egoiliarrentzako garajea handitzeko xehetasun-azterlanaren aldaketa, Udaleko zerbitzu teknikoek egindako proiektuaren arabera.

Bl.—Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan argitaratzea.

Hiru.—Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere aurka jakinarazpenaren atzeko aldean agertzen diren errekurtsok jar daitezkeela adieraztea.

Lau.—Erabakiaren ziurtagiria egitea, Lizentziak, Kudeaketa eta Eraikuntza Erregimen Sailataletan eta Esku-hartze Estrategikoen eta Aparkalekuen Sailean eragina izan dezan.

Aurkabideak:

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du eta bere aurka honako errekurtsok jar ditzakezu:

Berraztertze errekurtsua aurkez diezaiokezu erabakia hartu duen organoari. Horretarako hilabeteko epea izango da, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Errekurtsu hori jarri zenuen egunetik gehienez hilabeteko epean ebazpen adierazirik jaso ezean, gaitzetsizat joko da. Orduan, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango duzu Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako aretoan. Horretarako sei hilabeteko epea izango da, berraztertze errekurtsua gaitzetsizat jo izan den egunaren biharamunetik hasita.

Berraztertze errekurtsorik jarri nahi ez baduzu, zuzenean jar dezakezu administrazioarekiko auzi-errekurtsua Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako aretoan. Horretarako hilabete biko epea izango da, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, beste edozein aurkabide erabil dezakezu, egoki baderitzozu.

Bilbon, 2004ko otsailaren 6an.—Behin behineko Idazkari Nagusia

(II - 831)

IRAGARKIA

Udalbatzak 2004ko urtarrilaren 29an egindako batzarraldian erabaki hau hartu zuen, besteak beste (esp.: 03 1034 000043):

Bat.—Behin betiko onartzea Ametzolako Barne Eraberrikuntzarako Egitamu Bereziaren aldaketa 703. eta 704. banaketa-eremuetan, 703.04 eta 704 N betearazpen-esparruetan eta 80. eta 81. loteetan, Bilbao Ria 2000 enpresak aurkeztutako dokumentazioaren arabera.

Bi.—Erabaki hori eta aldatzen diren arauak iragarki-taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Ayuntamiento de Bilbao

ANUNCIO

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada con fecha 29 de enero de 2004; adoptó entre otros, el siguiente acuerdo (exp. te. 03 1034 000040):

Primero.—Aprobar definitivamente la modificación del Estudio de Detalle para la ampliación del garaje para residentes, en el Camino de Polvorín, dentro del Parque de Etxebarria, según proyecto presentado por los Servicios Técnicos Municipales.

Segundo.—Publicar este acuerdo en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y en el tablón de edictos.

Tercero.—Advertir que la presente resolución es definitiva en vía administrativa y contra la misma se podrán interponer los recursos que se indican al dorso de la notificación.

Cuarto.—Dedúzcase testimonio del mismo a fin de que surta efectos ante las Subáreas de Licencias, Gestión y Régimen Edificatorio y ante el Área de Intervenciones Estratégicas y Aparcamientos.

Medios de impugnación:

Contra la presente resolución, que es definitiva en vía administrativa, podrán utilizarse los recursos que se expresan a continuación:

El recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente a aquél en que haya recibido esta notificación.

En el supuesto de que se utilice este recurso, y no se resuelva expresamente en el plazo máximo de un mes, a contar desde la fecha de su interposición, se entenderá desestimado, en cuyo caso podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de seis meses, a contar desde el día siguiente a la fecha en que se entienda desestimado el de reposición.

Si no se desea interponer recurso de reposición, podrá utilizarse directamente el recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente a la fecha en que haya recibido la presente notificación.

De todas formas podrán utilizarse cualesquiera otros medios de impugnación si se estima oportuno.

Bilbao, a 6 de febrero de 2004.—El Secretario General, Acctal.

(II - 831)

ANUNCIO

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada con fecha 29 de enero de 2004; adoptó entre otros, el siguiente acuerdo (exp. te. 03 1034 000043):

Primero.—Aprobar definitivamente la Modificación del Plan Especial de Reforma Interior de Ametzola en las Áreas de Reparato 703 y 704, en las Unidades de Ejecución 703.04 y 704.N y en los lotes 80 y 81, según documentación presentada por Bilbao Ría 2000.

Segundo.—Publicar este acuerdo, así como la normativa que haya resultado modificada, en el Tablón de Edictos y en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Hiru.—Honako hau ohartaraztea: Administrazio-bidea amaitzen duen erabaki honen aurka, nahi izanez gero, jakinarazpenaren atzealdean azaldutako errekurtsok jar daitezkeela.

Lau.—Erabaki hau Bilbao Ría 2000-ri bidaltzea eta egiaztagiria egitea eragina izan dezan Lizentziak, Kudeaketa eta Eraikuntza-Erregimen sailataletan.

Aurkabideak:

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du eta bere aurka honako errekurtsok jar ditzakezu:

Nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez diezaiokezu erabakia hartu duen organoari. Horretarako hilabeteko epea izango da, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Errekurtsu hau jarri zen egunetik gehienez hilabeteko epean ebazpen adierazirik jaso ezean, gaitzetsizat joko da. Orduan, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzitarako aretoan, sei hilabeteko epean berraztertze errekurtsua gaitzetsizat jo izan den egunaren biharamunetik hasita.

Berraztertze errekurtsorik jarri nahi ezean, zuzenean aurkeztu daiteke administrazioarekiko auzi errekurtsua Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzitarako aretoan, bi hilabeteko epean jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, beste edozein aurkabide erabil dezakezu, egoki baderitzozu.

Aldatutako arauak

Laugarren kapitulua.—ERAIKUNTZARAKO ORDENANTZAK

4.2 artikulua.—Patioak eta atzeraemanguneak

[...]

Egitamu Bereziak 63b, 69, 80b eta 80d eraikinentzat zehaztu dituen barne lerrokaduretan atzeraemateak egin ahal izango dira, ondoko baldintza hauek betetzen direnean:

[...]

4.4. artikulua.—Hegaldurak

[...]

1.—Hegaldurak debekatuta daude ondoko egoeretan:

[...]

c) Andrés Isasi eta Emilio Arrieta kaleetan (kontuan hartu barik azken honen luzapena) 69 eta 80. eraikinei jarritako lerrokaduretan.

[...]

4.6 artikulua.—Eraikinen arteko profil bereziak eta korrelazioak

[...]

5) 80e eraikineko hirugarren solairuko behea (+40,00/40.50 sestratik hasita) E. Arrieta kalearen sestren (+48,00) parean egon behar da, horrela lonjak ipini ahal dira eta horietara kale honetatik sartzeko modua egongo da.

[...]

Artículo 4.7.—Xehetasun-azterlana

[...]

4.—Hor dauden eraikinetako batzuk bertan jarrituz gero (Andrés Isasi 6-8. zenbakiak), lerrokadura berriak izango dituzte (80b lotea), aurrez xehetasun-azterlana egin behar da baina etxadi osoa hartuko duena (80b, 80c eta 80d).

Terzero.—Advertir que el presente acuerdo es definitivo en vía administrativa y contra el mismo se podrán interponer los recursos que se indican al dorso de la notificación.

Cuarto.—Dar traslado de este acuerdo a Bilbao Ría 2000 y deducir testimonio a fin de que surta efectos ante las Subáreas de Licencias, Gestión y Régimen Edificatorio.

Medios de impugnación:

Contra la presente resolución, que es definitiva en vía administrativa, podrán utilizarse los recursos que se expresan a continuación:

El recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente a aquél en que haya recibido esta notificación.

En el supuesto de que se utilice este recurso, y no se resuelva expresamente en el plazo máximo de un mes, a contar desde la fecha de su interposición, se entenderá desestimado, en cuyo caso podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de seis meses, a contar desde el día siguiente a la fecha en que se entienda desestimado el de reposición.

Si no se desea interponer recurso de reposición, podrá utilizarse directamente el recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente a la fecha en que haya recibido la presente notificación.

De todas formas podrán utilizarse cualesquiera otros medios de impugnación si se estima oportuno.

Normativa modificada

Capítulo Cuarto.—ORDENANZAS EDIFICACION

Artículo 4.2.—Pacios y Retranqueos

[...]

En las alineaciones interiores señaladas por el Plan Especial para los edificios 63b, 69, 80b y 80d se permiten retranqueos siempre que se den las siguientes condiciones:

[...]

Artículo 4.4.—Vuelos

[...]

1.—Se prohíben vuelos.

[...]

c) En las alineaciones fijadas en las calles Andrés Isasi y Emilio Arrieta, sin incluir la nueva prolongación de esta última, para los edificios 69 y 80 b.

[...]

Artículo 4.6.—Perfiles especiales y correlaciones entre edificios

[...]

5) Que el edificio 80e deberá disponer el suelo de su tercera planta (a partir de las rasantes +40,00/40.50) a nivel de las rasantes de la calle E. Arrieta (+48,00) de forma que pueda servir como lonjas accesibles desde la misma.

[...]

Artículo 4.7.—Estudio de Detalle

[...]

4.—Para el caso en que se mantengan parcialmente los edificios existentes (Andrés Isasi n.º 6 - n.º 8) para lo que se fijan alineaciones nuevas (lote 80b), se debe redactar un E. D. previo cuyo ámbito sea el de la totalidad de la manzana (lotes 80b, 80c, 80d).

III.—Kudeaketa**1.—KUDEAKETA ETA JARDUTEKO FASEAK**

[...]

1-3.—Ametzola Hegoaldea

[...]

Beraz, ondoko eraikinek eta orubeek Jarduera Asistematikoa izango dute:

Andrés Isasi 11, 13 eta 15.

[...]

2.—Jardun unitateak

[...]

2.1.—AR 703-ko jardun unitateak

[...]

2.1.4.—703.04 jardun unitatea

—Unitatearen azalera: 28.969 m².

—Zenbatu beharreko lur-azalera: 28.969 m².

—Aprobetxamendu tipoa (AT): 1,11 m² VCM/m².

—ATren araberako aprobetxamendua: 32.155 m² VCM.

—Aprobetxamendu eskuragarria, guztira: 20.405 m² VCM.

—Aprobetxamendu-diferentzia: – 11.750 m² VCM.

—Kudeaketa-sistema: Desjabetzea.

—Betearazteko epea: Hogeita lau (24) hilabete desjabetzeko izapideak hasteko eta hogeita hamasei (36) hilabete urbanizazio proiektua aurkezteko.

—Jarduteko baldintzak: 80d eta 80e loteen lehenengo erabilerarako lizentzia emateko, Trenbide etorbidearen luzapena oso-osorik urbanizatu beharko da.

—Urbanizazio baldintzak: Unitatea urbanizatzeko proiektu bakarra aurkeztuko da lur gaineko urbanizazio-obrak zehaztuz eta trenbidea estaltzeko proiektua beste batean aurkez daiteke, honekin batera edo hau baino lehenago.

—Urbanizazio proiektuan amaitu barik utzi daiteke B.08 eta B.09 planoetan (Fase Iragankorren Antolamendua eta kudeaketa) patio ingelean iragankor legez sartuta dagoen lur-banda, baldin eta inguruetan aurreikusitakoa oraindik egin gabe edo egiten ari badira. Hala ere, aipatutako patio ingelesaren lurraren eta lur-banda osoko barandaren (beharrezkoa da luzera osoan) tratamendua edukiko du; tratamendu hori urbanizazioko gainerako elementuetako kalitatearen parekoa izango da.

—Kaltetutako jabeen zerrenda: Renfe eta Feve.

—Ondasunen eta eskubideen deskribapena: Jardun-unitatean sartutako lurzoruek FENFERen eta FEVERen zerbitzuei lotutako geltokietako trenbide-instalazioak osatzen dituzte.

Tartean dauden ondasunak dira, lurzoruez gain, trenbide-instalazioak, behin euren funtzionalitatea galdu dutenean. Trenbide-instalazioak dira, trenbideak eta horietarako zerbitzuak (katenariak, seinaleak...), baita jardun-unitatearen barruan dauden pabilioiak eta eraikinak ere.

Era berean, tarteko eskubideak dira desjabetzeko izapidea hasten den unean indarrean dauden emakidak ere.

Tarteko eskubidetzat jotzen dira Sistema Orokorreko trenbide-instalazioen hegalkinak ere, eska daitekeen galibo-kota gutxienez neurtua.

—Oharra: Udalak egoki irizten badio eta segurtasunari buruzko arautegi orokorrak horretarako bide emanez gero, gomentatzen da ibilgailuentzako arrapalak eta oinezkoak aparkalekura sartu eta irteteko guneak eraikitzeko loteen (80c, 80d eta 80e) barruan ipintzea.

2.2.7.—704.08 jardun unitatea

—Unitatearen azalera: 2.875 m².

—Zenbatu beharreko lur-azalera: 2.004 m².

—Aprobetxamendu tipoa (AT): 4,00 m² VCM/m².

—ATren araberako aprobetxamendua: 8.016 m² VCM.

—Aprobetxamendu eskuragarria, guztira: 8.016 m² VCM.

—Aprobetxamendu-diferentzia: 0.

III.—Gestión**1.—LA GESTION Y LAS FASES DE ACTUACION**

[...]

1-3.—Ametzola Sur

[...]

Quedan por tanto remitidos a Actuaciones Asistemáticas los siguientes edificios y solares:

Andrés Isasi números 11, 13 y 15.

[...]

2.—Las Unidades de Ejecución

[...]

2.1.—Las Unidades de Ejecución del AR 703

[...]

2.1.4.—Unidad de Ejecución 703.04

—Superficie de la Unidad: 28.969 m².

—Superficie de suelo a computar: 28.969 m².

—Aprovechamiento tipo (AT): 1,11 m² VCM/m².

—Aprovechamiento según AT: 32.155 m² VCM.

—Aprovechamiento materializable total: 20.405 m² VCM.

—Diferencia de aprovechamiento: – 11.750 m² VCM.

—Sistema de gestión: Expropiación.

—Plazo de ejecución: Veinticuatro (24) meses para el inicio del trámite de expropiación y treinta y seis (36) meses para la presentación del proyecto de urbanización.

—Condiciones de actuación: La licencia de primera utilización de los lotes 80d y 80e estará condicionada a la completa urbanización la prolongación de la Avenida del Ferrocarril.

—Condiciones de urbanización: Para la urbanización de la Unidad deberá presentarse un único proyecto que comprenda las obras de urbanización en superficie, pudiendo presentarse, por separado, de forma anticipada o en paralelo, el proyecto de cubrición del ferrocarril.

—El proyecto de urbanización podrá dejar sin terminar la franja de suelo incluida como patio inglés transitorio en los planos B.08 y B.09 de Ordenación y Gestión de Fases Transitorias, en el supuesto de que no se hubieran ejecutado o se estuvieran ejecutando las previsiones de la zona colindante. Sin embargo, deberá tener el tratamiento del suelo del citado patio inglés y del barandillado necesario todo lo largo de aquél, realizando con el mismo grado de calidad que el resto de los elementos de la urbanización.

—Relación de propietarios afectados: Renfe y Feve.

—Descripción de los bienes y derechos: Los suelos incluidos en la Unidad de Ejecución forman parte de las instalaciones ferroviarias de las estaciones vinculadas a los servicios de Renfe y Feve.

Son bienes afectados, además de los propios suelos, las instalaciones ferroviarias una vez perdida su funcionalidad para tal uso, entendiéndose por tales tanto las líneas férreas y sus servicios (caterías, señalización, etc.) como los pabellones y edificaciones comprendidas dentro del ámbito de la Unidad.

Son también derechos afectados las concesiones que pudieran permanecer en el momento de iniciarse el trámite de la expropiación.

Se considera también un derecho afectado el vuelo de las instalaciones ferroviarias que permanecen en su calidad de Sistemas Generales, tomado a partir de la cota del gálibo mínimo exigible.

—Observaciones: Si se considera oportuno por parte del Ayuntamiento y si la normativa general de seguridad lo permitiese, se recomienda disponer las rampas para vehículos y los núcleos de accesos de peatones del parking público, en el interior de los lotes edificatorios (80c, 80d y 80e).

2.2.7.—Unidad de Ejecución 704.08

—Superficie de la Unidad: 2.875 m².

—Superficie de suelo a computar: 2.004 m².

—Aprovechamiento tipo (AT): 4,00 m² VCM/m².

—Aprovechamiento según AT: 8.016 m² VCM.

—Aprovechamiento materializable total: 8.016 m² VCM.

—Diferencia de aprovechamiento: 0.

—Kudeaketa-sistema: Konpentsazioa.

—Jarduteko baldintzak: Urbanizazio-proiektua lizentzia eman aurretik onartu behar da, nahiz eta gauzatu, eraikinekin batera gauza daitekeen.

Lehen erabilerarako baimena ematen denerako, urbanizazioak amaituta egon behar du oso-osorik.

—Oharra: Eraikintzako proiektuaren barruan, 80a (PERIren muga) eraikineko ageriko mehelinaren tratamendua eta akabe-
ra ere sartu behar dira.

Bilbon, 2004ko otsailaren 6an.—Behin-behineko idazkari nagusia

(II - 832)

IRAGARKIA

Euskal Herriko Ingurugiroaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 58. artikularen 1. eta 2. paragrafoen ondorioetarako, honako hau jakinarazten da: ondorengo zerrendan agertzen direnek baimena eskatu dutela adierazten diren udal-erri honen barruko kokalekuetan ondorengo jarduerak ezarri eta burutzeko.

Hau guztia jakinarazten da jardueren eraginpekoek iragarki hau argitaratu eta hurrengo hamabost asteguneko epean dagoz-
kien erreklamazio eta oharra idatziz aurkez ditzaten.

03-1072-46/María Esther Olea Fernández and.: Taberna jar-
duera legeztatzea. Rafaela Ibarra k. 11, lonja.

